


KROMOAK TRUKATZEN

Eskolako jolastokian kromoak trukatzeko postu bat jarri dute.



Animalien kromo batek panpinen 2 kromoren balioa du



Animalien 2 kromok kiroletako 3 kromoren balioa dute

Ume batzuk postura gerturatu dira kromoak trukatzeko.

Maitek animalien 5 kromo ditu eta panpinen kromoengatik trukatu nahi ditu. Zenbat panpin kromo lortuko ditu?

panpin kromo lortuko ditu

Anderrek animalien 8 kromo ditu eta kiroletako kromoengatik trukatu nahi ditu. Zenbat kirol kromo lortuko ditu?

kirol kromo lortuko ditu

Naiarak 6 animalia kromo ditu eta ahalik eta kromo gehien lortu nahi ditu.

Zenbat panpin kromo lortuko lituzke?

panpin kromo lortuko lituzke

Zenbat kirol kromo lortuko lituzke?

kirol kromo lortuko lituzke

Panpinen kromoekin edo kirol-kromoekin aldatu beharko lituzke?

kromoekin aldatu beharko lituzke

Estebanek 15 kirol-kromo ditu animalien kromoekin trukatzeko. Zenbat animalia kromo lortuko lituzke?

animalia kromo lortuko lituzke

Andonik 8 panpin kromo ditu kiroletako kromoekin trukatzeko. Zenbat kirol kromo lortuko lituzke?

kirol kromo lortuko lituzke